

Bilingual minds

Emotional experience, expression and representation

ANETA PAVLENKO (arg.)

Clevedon, UK: Multilingual Matters LTD, 2006, xvi + 324 or.*

Oraintsu arte, elebiduna izatearekin lotuta dauden gai eta arazoez aritu diren ikerketek hiru arlo nagusi hauek izan dituzte aztergai (ikus Hakuta 1994): elebitasuna eta adimena, bigarren hizkuntzaren eskurapena, eta elebitasunaren ikuspuntu psikolinguistikoa eta ikuspuntu soziolinguistikoa. Elebitasunaren eta adimenaren arteko harremanari dagokionez, galdera eta kezka zen ea elebitasuna kaltegarria den adimenaren garapenarentzat. Bigarren hizkuntzaren jabe egitea dela eta, galdera nagusiak bi ziren: zein den hor ama-hizkuntzaren rola eta zein faktorek dakarten batzuek arrakasta izatea eta beste batzuek ez. Azkenik, aipatu bi ikuspuntuei dagokienez, elebitasuna nola kontzeptualizatu nahi zen zen kontua, fenomeno psikolinguistikoa gisa ala fenomeno soziolinguistikoa gisa. Lehenengo kasuan, elebidunak bi hizkuntzetan zuen gaitasun erlatiboaz galdetzen zen; bigarreanean, aldiz, gizabanako elebiduna zein hizkuntza-komunitatekoa zen.

Bilingual minds (*Buru elebidunak*) du izena hemen aurkeztera noan liburuak eta, bistan denez, elebidunak ditu mintzagai. Liburua osatzen duten lanek, ordea, oraintxe aipatu ditudan horien aldean oso bestelakoa den arlo bat jorratzen dute. “Lanek” esan dut, pluralean, ikertzaile askoren lanak biltzen baititu liburuak. Dena dela, ikertzaileak eta ikerlanak asko badira ere, bat egiten dute denek gauza batean, elebitasunari buruz aztertzen duten arlo edo sailean hain zuzen. Zein den arlo hori nolabait adierazita dago izenburuan. *Minds* hitzak arreta elebidunaren buruan, edo gogoan, jarrarazten digu eta elebidunaren buruan, elebiduna izateagatik, elebakarreanean gertatzen ez den zerbait gertatzen ote den pentsarazten digu. Eta azpititulua kontuan hartzen badugu, *emotional experience, expression and representation*, aise atera dezakegu zer interesatzen zaien autoreei: ea elebidunarengan emozioak sentitzeko, adierazteko eta buruan irudikatzeke modua aldatu egiten den hizkuntza batetik bestera igarotzean.

* [Liburu-kritika honen lehenagoko bertsioa hemen argitaratu zen, 2006an: *Gogoia* VI (2): 199-205.]

Eta, tituluaz aritu naizenez, beharbada mereziko du esatea, ez hori baizik honako hau jartzeko asmoa zutela lehenbizian: *Language and emotions of bilingual speakers* (*Hiztun elebidunen hizkuntza eta emozioak*). Baina, lanak jaso ahala, gero eta garbiago ikusi zuela dio argitaratzaileak izenburu horrek ez zuela ongi adierazten ikerketek erantzun nahi zuten galdera. Hau, izan ere, hizkuntza hautatzean eta erabiltzean emozioek duten esku-hartzeari baino gehiago beste arazo honi baitzegokion: ea ba ote dagoen loturarik elebiduna izatearen eta elebidunak bere buruaz duen esperientziaren artean. Hitz gutxitan esateko, elebidunak, elebiduna den aldetik, zenbat “ni” ote ditu?

Liburu honek elebidunei —eta eleaniztunei¹— buruzko ikerkuntza bide berrietatik abiarazten duelako ustea du liburuaren argitaratzaile den Aneta Pavlenkok. Ikus dezagun zergatik dioen hori. Hitzaurrean esaten duenez, joan den mendean, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, egin ziren liburu honetan egiten direnen antzeko galderak, baina orduan ez zen oraindik sortua galdera horiek aintzat hartzeko behar zen giroa, edo *zeitgeist*a, berak darabilen hitzaz esateko. Bestalde, faktore afektiboak kontuan hartzen zirenean ere, galdera gisa honetakoa zen: zein dira bigarren hizkuntza bat ikastean eta erabiltzean eragina duten faktoreak? Orain, ordea, zabaldu egin da, eta ez gutxi, elebitasunaren eta emozioen arteko loturari buruz egiten diren galderen eremua. Batzuetan elebidunen emozio-esperientzien gainean egiten da galdera, beste batzuetan ea nola adierazten diren emozioak testuinguru elebidunetan, eta beste batzuetan ea nola irudikatzen diren elebidunaren buruan emozio-hitz eta -kontzeptuak eta oroitzapen autobiografikoak.

Eta sail berri bat jorratzen hasi badira, zer lortu nahi dute? A. Pavlenkok lau helburu aipatzen ditu, berak dioenez *Bilingual minds*en parte hartu dute netako batzuek elkarrekin lan eginez finkatu dituztenak. Helburu bat da eza-gutzea nola diren irudikatzen eta prozesatzen elebidunen buruko lexikoe-tan gisa honetako hitz eta kontzeptuak: emozioak adierazten dituztenak eta emozioen bat pizten dutenak. Beste helburu bat da ikustea ea emozio-kontzeptuak itzulgarriak diren hizkuntza batetik beste batera. Ikertzaile hauen beste asmo bat da erakustea elebitasunak elebakartasunak ez bezalako aukerak eskaintzen dituela norabide berriak argitzeko hizkuntzen eta emozioen arteko harremanen azterketan. Azkenik, sentimen kutsua eman nahi diote ikerketa linguistiko eta psikolinguistikoari, hiztunen bizipen eta kezkei leku eginez.

Elebitasunaren zelai zabalean *Bilingual minds* liburuaren autoreek aukeratu duten sailaren eta hori egiteko izan dituzten arrazoen berri jakin ondo-

¹ Elebidunetz esaten denak eleaniztunentzat ere balio du; horregatik, bi hitzak behin eta berriaz elkarrekin aipatu ordez, ez dut “elebidun” hitza baizik erabiliko, baina gogoan izan eleaniztunak ere barnean daudela.

ren, prest gaude hor zein lan mota eskaintzen zaizkigun ikusten hasteko. Hamaika kapitulu ditu liburuak, hamaika lan zeinek bere autorea edo autoreak dituela. Kapituluak badute, noski, elkarrekin loturarik, horregatik bildu dira liburu berean; besteak beste, ikerketa arlo berean ari dira eta bat datoz helburuetan, gorago aipatu ditugun horietan. Hala ere, lan bakoitza bere eskuko denez, ez da beharrezko liburuan datozen ordenan irakurtzea. Horrek, ordea, ez du esan nahi nolana antolatuta daudenik; ez, noski. Aipatu berriak ditugun hiru galdera motak kontuan hartu dira kapituluaren banaketa egiteko. Horrela, aurreneko hiru kapituluak emozio-esperientziaz ari dira, elebidun batzuek beren hizkuntza eta kulturez dituzten esperientzia ezberdinez, eta esperientzia-mundu horietako batetik bestera igarotzean emozioek duten parteaz. Hurrengo hiru kapituluak emozioen adierazpenari begiratzen diote, eta ez emozio-esperientiari. Ondorengo hiru kapituluetan emozio-hitz eta -kontzeptuen irudikapen kognitiboa hartzen da kontuan. Dena dela, bederatzik kapitulari dagokie hemen esan duguna eta badakigu dagoeneko hamaika dituela liburuak. Gelditzen diren biek ez dute zerikusi zuzenkorik esandako galderekin eta, horregatik, azkenean jarri dira.

Ondoren, kapituluz kapitulu, liburuak biltzen dituen lanen aurkezpena egingo dut, batzuetan laburra, beste batzuetan luzexeagoa izango dena, kasu bakoitzean jorratzen den gaiaren interesaren arabera. Nolanahi ere, beti emango ditut ezagutzera lanaren izenburua, autorea edo autoreak eta aztergaia.

Lehenbiziko kapituluaren izenburua “Bilingual selves” da eta, egilea, Aneta Pavlenko hizkuntzalari. Izenburuaren hitzez hitzeko itzulpena “Ni’ elebidunak” edo izango litzateke; baina hor eztabaidagai den arazoa kontuan izanik, egokiago dirudi itzulpen honek: “Elebidunaren niak”. Galdera batzuk eginez hasten du bere lana Pavlenkok. Aurrenekoa da hemen interesgarriena: “Elebidunei eta eleaniztunei, hizkuntza diferentetan mintzatzaren direnean, batzuetan pertsona desberdinak direla iruditzen ote zaie?”. Galdera horri erantzun nahian, hiru datu mota hartzen ditu kontuan autoreak: introspektzio bidezkoak, enpirikoak eta klinikoak. Introspektzio bidezkoen artean, idazle *translingualen*² lekukotasunak, Julien Greenena edo Tzvetan Todorovena adibidez, eta “Bilingualism and emotions” (Elebitasuna eta emozioak) izeneko web galdeketa bati, hau da, posta elektronikoz bideratutako galdeketa bati 1.039 elebidunek emandako erantzunak sartzen dira. Material enpirikoak elebidunen hitzeko jokabideak aztertzeko hainbat psikologo eta psikolinguistak egindako lanetatik sortutakoak dira. Elebidunen hitzeko jokabideak neurtzeko hitzeko egiteko edo lan jakin batzuk erabili izan dira, hala nola diferentzial semantikoak, hitz-asoziazioak, perpausak eta istorioak bukatzea eskatzen duten egitekoak eta Apertzepzio Test Tematika

² Ingelese “translingual” esaten zaien idazleak hizkuntza bat baino gehiagotan edo beren ama-hizkuntza ez den hizkuntza batean idazten dutenak dira.

(TAT). Elebidunek aurrena hizkuntza batean egiten dituzte egiteko horiek eta, aste batzuk geroago, beste hizkuntzan. Datu klinikoei dagokienez, autoreak psikoanalista batzuen oharpenak aipatzen ditu; horien arabera, bezero elebidunak maiz urduriago eta sentiberago agertzen dira beren lehen hizkuntzan geroago eskuratutakoan baino eta, batzuetan, uko egiten diote lehen hizkuntza erabiltzeari. Bada, datu horiek guztiak batera hartuta autorearen ustez honako hau iradokitzen dute: bizitzako lehen urteetan ikasitako hizkuntza eta geroago ikasitakoa(k) desberdinak direla sentitzen den emozionalitatean eta horren ondorioz balitekeela elebidunak bere baitan “ni” desberdinak sumatzea.

Bigarren lanaren egilea Mary Besemeres da eta lanaren izena “Language and emotional experience: The voice of translingual memoir” (Hizkuntza eta emozio esperientzia: oroitzapen *translingualen* ahotsa). Hizkuntza dela eta, idazle elebidunek, eta bereziki *translingual* direlakoek, beren testu autobiografikoetan adierazten dituzten emozio-esperientziak aztertzen ditu eta haien adierazpenetan zenbait estutasun eta hizkuntza batetik bestera itzultzeko ezintasun hautematen ditu. “A passion for English: Desire and the language market” (Ingeleserako grina: desira eta hizkuntzaren merkatua) da hirugarren kapituluaren titulua. Bertan Australiara, Sydneyra zehazkiago, ingelesa ikastera joandako bost emakume japoniarri buruzko ikerketa etnografikoa egiten dute Ingrid Piller eta Kimie Takahashi ikertzaileek. Hauek xeheki azaltzen dute zer esan nahi duen ingelesa ikasteko irrikan egoteak, nola kokatzen den ingelesa ikasteko desira hori japoniar emakumeei buruzko diskurtso zabalagoaren barnean, eta nola interpretatzen duten ikerketako parte-hartzaileek beren ingelesarekiko desira, komunikabideek sexu kutsu nabarmenarekin japoniar emakumeengan pizten dutena.

Hurrengo hiru lanen egileen kezka ez dira elebidunen emoziozko esperientziak, baizik pertsona horiek sentimenduak adierazteko dituzten moduak. Michèle Kovenek, esate baterako, laugarren kapituluaren hasieran, galdera hau egiten du: Elebidunek sentimenduak ezberdin adierazten ote dituzte beren bi hizkuntzetan? Hona kapituluaren izena: “Feeling in two languages: A comparative analysis of a bilingual’s affective displays in French and Portuguese” (Bi hizkuntzatan sentitzea: elebidun baten frantsesezko eta portugesezko afektu-adierazpenen analisi konparatiboa). Autoreak Frantziara emigratutako guraso portugaldarren alaba elebidunaren kasua aztertzen du. Gazte horrek, zein hizkuntza erabiltzen duen, frantsesa edo portugesa, afektua ez du berdin kanporatzen. Autoreak erakusten du txikitatik elebidun direnek ere hizkuntza-errepertorio ezberdin samarrak izan ditzaketela beren bi hizkuntzetan. Beste datu interesgarri bat da Kovenek aztertutako gazteak, emozioak adierazteko, nahiago duela etxetik kanpo ikasitako hizkuntza etxean ikasitakoa baino. Eta zein da elebidunek nahiena duten hizkuntza emozio bortitzak adierazteko? Emozio bortitz bat haserrea da. Zein hizkuntza hobesten dute elebidunek, edo eleaniztunek, emozio hori hitzataratzeko?

Hori da Jean-Marc Dewaelek bosgarren kapituluan aztertzen duen gaia. Izenburu hau du Dewaelerin lanak: "Expressing anger in multiple languages" (Haserrea hizkuntza askotan adieraztea). Lan horretan, 1.454 parte-hartzailek web-galdeketa bati emandako erantzunetatik, zera ondorioztatzen du: hiztunek haserrea kanporatzeko nahiena duten hizkuntza gehienetan lehen hizkuntza dela eta geroago ikasi diren hizkuntzak erabiltzeko dagoen joera gero eta txikiagoa dela. Jyotsna Vaid psikologo esperimentalak ere hizkuntza hautatzeaz ari da, baina ez haserrearen eremuan, baizik umorearenean. Autoreak egindako bi ikerketa enpirikok iradokitzen dutenez, zein den parte-hartzaileek bat egiten duten kultura taldea, horren arabera alde interesgarriak daude hizkuntzetako bat edo bestea aukeratzeari dagokionez. Vaiden lanaren izena da "Joking across languages: Perspectives on humor, emotion, and bilingualism" (Txantxetan aritzea hizkuntzetan barrena: umorearen, emozioaren eta elebitasunaren gaineko ikuspegiak).

Hurrengo hiru lanek emozioen irudikapena hartzen dute kontuan, emozio-hitz eta -kontzeptuen irudikapen kognitiboa zehazkiago. Alexia Panayiotouren kapituluak, liburuko zazpigarrenak, errua eta lotsa ditu mintzagai: "Translating guilt: An endeavor of shame in the Mediterranean?" (*Guilt* itzultzen: lotsarazteko saioa Mediterraneoan?). Elebiduna eta kulturabiduna den ingurunean termino horiek nola eraikitzen diren aztertzen du. Ameriketako ingelesa eta Zipreko grekoa dira autoreak estudiatzen dituen hizkuntzak eta kulturak. Espezifikoki, itzulpenean baliokidetzat hartzen diren ingelesezko eta grekozko *shame/ntropi* (lotsa) eta *guilt/enohi* (errua) terminoen baliokidetasun kulturala eztabaidatzen du. Hurrengo kapituluan, "Envy and jealousy in Russian and English: Labeling and conceptualization of emotions by monolinguals and bilinguals" (Bekaitza eta jeloskortasuna errusieraz eta ingelesez: emozioak nola izendatzen eta kontzeptualizatzen dituzten elebarkarrek eta elebidunek), ingelesezko *jealousy* eta *envy* eta horien errusierazko ordaintzat jotzen diren *revnost'* eta *zavist'* hitzen irudikapenetan ipintzen da arreta. Parte-hartzaileak hiru taldetan daude banatuta: bi talde elebarkar, errusieraz bakarrik egiten duten errusiarrak eta ingelesez bakarrik egiten duten amerikarrak, eta talde elebiduna, errusieraz eta ingelesez egiten dutenena. Hiru talde horien irudikapenen konparazioa egiten da Olga Stepanova Sachs eta John Coley psikologoek idatzia den lan horretan. "Cognitive approaches to the study of emotion-laden and emotion words in monolingual and bilingual memory" (Hurbiltze kognitiboak emozio-educiko eta emozio-hitzen ikerketara oroimen elebarkarrean eta elebidunean) da bederatzigarren kapituluaren titulua eta Jeanette Altarriba da horren egilea. Zein diren emozioei lotuak dauden hitzen ezaugarriak elebarkarren oroimenean eta elebidunenean, nolakoa den horrelako hitzak oroimenean irudikatuta dauden egitura edo buruko arkitektura, nolako eragina duen irudikapen horietan hitzen balentziak (hitzak positibo nahiz negatibotzat jotzeak) eta *arousal* edo iratzartzeko indarrak: horra hor zein diren Altarribak aztertzen dituen gaiak. Kontu haue-

taz ari diren ikerketak berrikusi ondoren, ondorio hauetara iristen da auto-rea: 1) emozioak izendatzen dituzten hitzek sail berezia osatzen dute oroime-
nean, 2) litekeena da hitz horiek ez egotea berdin irudikaturik elebidunaren
bi lexikoetan, 3) emozioekin lotuta dauden hitzak hizkuntza menderatzai-
lean prozesatzen direnean mendeko hizkuntzan ere abian jartzen dira *arou-
sal* delakoaren osagaiak, eta 4) hurbiltze kognitiboek aukera ematen dute ho-
rrelako hitzak gordetzen dituen buruko arkitektura nolakoa den jakiteko.

Hamargarren lanak aurrekoek ez bezalako ikuspegia hartzen du emozio-
edukia duten hitzen prozesatzearen ikerketan. Izen hau du lanak, “When is
a first language more emotional? Psychophysiological evidence from bilingual
speakers” (Noiz da lehen hizkuntza bat emozionalagoa? Hiztun elebidunen
froga psikofisiologikoak), eta hiru autore ditu, denak psikologoak: Catherine
Harris, Jean Berko Gleason eta Ayşe Ayçiçeği. Izenburuaren bigarren parteari
begiratzea nahikoa da ohartzeko zein den autoreek beren ikerketan hartzen
duten bidea: froga psikofisiologikoena. Kapitulu honetan, autoreek berrikus-
te-lana egiten dute aurrena. Era honetan egindako ikerketak hartzen dituzte
kontuan: parte-hartzaile elebidunei hainbat estimulu aurkeztu beren lehen
hizkuntzan eta bigarrenean eta haien erantzun emozionalen alderdi fisiolo-
gikoak neurtu dituztenak. Teoria bat proposatzera ere ausartzen dira, “ikas-
ten den testuinguru emozionalen teoria” deitzen dutena. Horren arabera,
hizkuntzak hartzen du bere-berea duen emozio kutsua testuinguru emozio-
nal jakin eta berezi batean ikasten, edo eskuarki erabiltzen, delako. Azkeneko
kapituluan ere antzeko zerbait esaten zaigu. Horren izenburua: “Bilingual
autobiographical memory and emotion: Theory and methods” (Elebidunen
oroimen autobiografikoa eta emozioa: Teoria eta metodoak). Egileak: Ro-
bert Schrauf eta Ramon Durazo-Arvizu. Hauen arabera, oroitzapen jakin bat
gogoratzean, elebidunak gogoan leku eta denbora jakin batean kodetutako
gertaera bat berreraikitzen du buruan. Hau da, gogoan giro soziokultural eta
linguistikoa jakin batean kodetutako oroitzapen bat dakar orain gogora. Es-
perientziaren emozio kutsua eta beharbada esplizituki gogoratzen diren ger-
taera hartako hitz nahiz esaera batzuk ere kodetuta daude oroimenean, lehe-
nengo hizkuntzan edo bigarrenean nahitaez. Hala, bada, azkeneko bi lan
hauek iradokitzen dute nola dituzten hizkuntza ikasten eta erabiltzen de-
neko esperientziek elkarrekin josten hizkuntzak, oroitzapenak eta emozioak.
Oso egoki jarri dira bi lan hauek liburuaren amaieran, zeren hor aurreko ka-
pituluetako aurkikuntza, esperientzia eta autopertzepzioak oroimen autobio-
grafiko eta emozionalaren eta norbere esperientziaren esparru zabalagoen
barnean kokatzen baitira.

Liburuak badu hitzatzea ere, argitaratzailearen eskutik datorkiguna. Erre-
ferentziak alde batera utzita, lau orrialde eskas ditu hitzatze horrek, baina
bertan Aneta Pavlenkok oso ongi laburtzen ditu elebitasunaren eta emo-
zioen estudioan gaurdaino egin diren galderak, proposatu diren teoriak,
bildu diren datu motak eta datu horiei aplikatu zaizkien analisiak. Eta, hori

egitean, batez ere liburuak berak eskaintzen duena hartzen du kontuan. Bestalde, orain arteko lanak dituen mugak ere aipatzen ditu hor, teoriaren nahiz metodologiaren aldetik dituenak adibidez.

Bukatzeko, liburua irakurtzera gonbidatzen dut irakurlea, interes handikoa baita, bai elebitasunaren arloko adituentzat eta bai, gure kasuan gertatzen den bezala, hizkuntza bat baino gehiago erabili beharrean aurkitzen direnentzat ere.

Pello Huizi

ILCLI (UPV/EHU)

Erreferentzia

HAKUTA, K. 1994. "Bilingualism". In R. STERNBERG (arg.), *Encyclopedia of human intelligence*. New York: MacMillan Publishing Co.